



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

Aldundiak 2013. urteko aurrekontuen Proiektua aurkeztu dau Batzar Nagusien erroldategian; horregaz hasten da Aurrekontuak onartzeko izapideen ibilbidea

Bilbon, 2012ko azaroaren 19an

Jose Luis Bilbao Bizkaiko Ahaldun Nagusi jaunak, José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatu jauna lagun ebalatzen, goizean Batzar Nagusietako erroldan aurkeztu ditu 2013. urtekitaldiko Aurrekontuak, Bizkaiko legebatarrean egin beharreko izapideari hasiera emonaz. Aurrekontuok euskarri elektronikoan aurkeztu dira. Aurrekontuak onartzeko bidean egingo dan hurrengo izapidea izango da Foru Diputatu guztiak Ekonomia eta Ogasuneko Batzordera joatea eta bertan Batzarkide-Taldeei emotea baktokari jagokon Sailaren aurrekontuen inguruko argibide eta azalpenak.

Aurrekontuak guztira 6.578 milioioak dira eta horreetarik 1.047 milioi jagokoz Aldundiaren Sailentzako dagoan aurrekontuari. Behin Diputatu baktokak azaltzen dauenean berari jagokon aurrekontua, hurrengo pausoa izango da Bizkaiko Batzar Nagusietako Mahaiak epea zabaltzea Taldeek zuzenketa-eskeak aurkeztu daiezan. Behin zuzenketa-eskeak aurkezturik, Mahaiak sailkatu egingo ditu, aurrekontuei buruzko lehen Osoko Batzarra noiz egin erabagi orduko. Osotasunekotzat sailkatu daitezkan zuzenketa-eskeei buruzkoa izango da aurrekontuen ganeko lehen Osoko Batzarra. Osotasunezko zuzenketa eskerik onartu ezean, zatizko zuzenketa-eskeez eztabaidatuko da Batzordean. Aurrekontuen azken izapidea izango da Batzordean onartu ez diran zuzenketa-eskeei buruzko Osoko Batzarra.

AHALDUN NAGUSIAREN BATZORDERATZEA, FINANTZETAKO EUSKAL KONTSEILUAK URRIAREN 23AN IZANDAKO BATZARRAREN BARRI EMOTEKO.

Aurrekontuak Batzar Nagusietan erroldaratu ostean, Ahaldun Nagusi jauna Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean bertaratu da Finantzetako Euskal Kontseiluak urriaren 23an izandako batzarraren barri emoteko (Kontseiluaren bilera hori Eusko Jaurlaritzak atzeraturik eukanez, ondoriotzat etorri da aurrekontuak onartzeko egutegi guztia be atzeraturik joatea). Bildu Taldeak egindako eskariaren eskutik etorri da batzorderatze hori. Bildu Taldeak jakin gura eban Lurraldeko 2012. urteko diru-kontuetan ze ondorio izango dauen Kontseiluak hartutako erabagiak, hain zuzen be erabagi horren ondorioz urtekitaldi honetako aurre-likidazioan konputatuko dalako “zerga-oporrak” deritxenen laguntzakaitik euskal enpresek itzulitako dirua.

Bizkaiko Ahaldun Nagusiak berretsi egin dau diru hori daborduko konputaturik dagoala aurtengo kontuak itxi aurreko likidazioan. “Geureaz besteko erespeidea nagusitu da eta onartu egin dogu, hoba ez”; horixe esan dau Bilbao jaunak Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Aldundiak Kontseilu



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

horretan lortutako akordioaz, zeinaren arabera 2012. urteko kontuetan konputatuko diran laguntzak itzultzetik atarata bai baina oraindik Luxenburgoko Gortearen ebazpenaren pentzu dagozan 309 milioiak. Horreetatik 80,9 milioi euro Bizkaian bildutakoari jagokoz. Bilbao jaunak barriro esan dau Bizkaiko Foru Aldundia ez dagoala ados erabagi horregaz, eta halanda be, men egiten deutsala, bere aburuz “zuhurtziaren” printzipioa nagusitu behar litzatekealako, harik eta “segurtasun juridiko osoa” izan arte. Galdetu egin deutse Bilduko eta Socialistas Vascos Taldeko ordezkari ei ea zer jazoko dan Europako ebatzia aurkakoa bada; Bilbao jaunak esan dau hori jazoten bada, “itzelezko nahastea” izango dogula.

Ahaldun Nagusiaren ustez, Eusko Jaurlaritzaren kontuen likidazioaren “argazia garbitu nahia” nagusitu da. Dana dala, Bilbao jaunak esan dau ataza hori ez zala izan Kontseiluan eztabaidatutako handiena, ez eze gitxiagorik be. Ahaldun Nagusiarentzat “larriagoak” izan dira, besteak beste, 2013-2016- aldirako erakundearteko barrikuntza fondoa onartu izana edo Eusko Jaurlaritzaren botoa abstentzinoa izana 2013. urterako sarrerren aurreikuspenari jagokonean.

Bai Bizkaiko Talde Popularra bai Euzko Abertzaleak Taldea bat etorri dira Ahaldun Nagusiaren eretxiagaz, behintzat epaitegiek ebazpena emon arteko “zuhurtziari” jagokonean. Esther Martínez Bizkaiko Talde Popularreko Taldeburuak esan dau horren guztiorren arrazoia izan dala Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza “estu eta larri” dabilzala bakotxaren aurrekontuetan. Martínez andreak esan dau “Ausarkeria izan leitekela orain erabiltea diru hori, etorkizunean erabili ahal izango dogun jakin aurretik behintzat”. Popularren Taldeburua bat etorri da Bizkaiak eta Arabak arazo horretan agertutako jarrereagaz, “zuhurtzia, seriotasuna eta zentzuna” erakutsi dabelakoan.

Unai Rementeria jauna, Euzko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos Taldeko Taldeburua, arduraturik agertu da dirulaguntzen itzulketea aurtengo kontuetan sartzeko erabagi horren inguruan. Rementeria ustez, bai Bildu bai sozialistak arduratuago egon beharko ziran Europaren balizko ezetzagaz Aldundiaren ustezko eretxi aldaketegaz baino. Taldeburu horrek beste Talde bioi leporatu deutse eretxiz aldatu izana “eurak jokatu dabelako adostutakoaren aurka eta eurak aldatu diralako eretxiz”. Rementeria aburuz, Eusko Jaurlaritzak Finantzen Euskal Kontseiluan jokatu dauen moduan jokatzaren arrazoia izan da “defizit gitxiago” agertu gura izana gobernutik urten aurretik, kontuan izanik eze 309 milioi horreetatik %70a Jaurlaritzarentzat izango dirala, Gipuzkoako Aldundiari esker hain zuzen, Jaurlaritzari “txarria gizentzen” ibili dira-ta.

Beste aldean, bada, Bilduko batzarkide Joseba Gezuragak uste dau eze Finantzetako Euskal Kontseiluaren 2011.eko urriko akordioan zehazturik egoala zerga oporrakaitik itzultitako dirua 2012. urtean sartu behar zala. Tamalgarriz jo dau Aldundiak “oldarketa politikorako” erabili izana Finantzetako Euskal Kontseilu hori. Batzorderatze eskarian adierazotako usteari eutsi eta esan dau Aldundia “eretxiz aldatu egin dala” Lakuako Gobernuari diru hori aurtan ez itzultzeko. Socialistas Vascos Taldeko Iñaki Egaña Taldeburua bat etorri da, esanez aurretiazko akordioa egoala dirua 2012. urtean banatzeko eta, beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak “eretxi aldaketea izan dauela”. Ganeratu dau eze 2011ko urriko akordioaren ganeko “ulerkera diferenteak” egon dirala.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

La Diputación registra en las Juntas Generales el Proyecto de Presupuestos de Bizkaia de 2013 para iniciar el trámite parlamentario

Bilbao, a 19 de noviembre de 2012

El Diputado General de Bizkaia, José Luis Bilbao, acompañado del Diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha entregado esta mañana a la Presidenta del parlamento vizcaíno, Ana Madariaga, el Proyecto de Presupuestos del territorio del año 2013 para su tramitación en las Juntas Generales de Bizkaia. Con la entrega de las cuentas en soporte electrónico, arranca así el debate parlamentario de las cuentas de Bizkaia que tendrá como primera parada la comparecencia de los diputados forales en el seno de la Comisión de Economía y Hacienda, con el fin de explicar a los grupos junteros el presupuesto de sus respectivos departamentos.

Tras la explicación departamental en estas comisiones informativas de unas cuentas que cuentan con un presupuesto total de 6.578 millones de euros, de los que 1.047 millones corresponden a gestión propia de los ocho departamentos de la Diputación, la Mesa de las Juntas Generales abrirá después el plazo para la presentación de enmiendas por parte de los cuatro grupos junteros. Una vez presentadas estas enmiendas, la Mesa procederá al análisis de las mismas como paso previo a la convocatoria de una primera sesión plenaria, que se celebrará ya en diciembre, para debatir en primer lugar las enmiendas a la totalidad. Tras este pleno, en su caso, se debatirán las enmiendas parciales en comisión. Y el trámite parlamentario finalizaría con un nuevo pleno que analice las enmiendas parciales que queden tras su paso por la Comisión de Economía y Hacienda.

COMPARECENCIA DEL DIPUTADO GENERAL PARA INFORMAR DE LA REUNIÓN DEL CONSEJO VASCO DE FINANZAS CELEBRADA EL 23 DE OCTUBRE

Tras el registro de las cuentas de Bizkaia, el Diputado General ha comparecido, a petición del Grupo Bildu, para informar de los acuerdos adoptados en la sesión del Consejo Vasco de Finanzas (CVF) del 23 de octubre, reunión que fue retrasada por el Gobierno Vasco y que, como efecto dominó, afectará al calendario de tramitación de los presupuestos. La coalición abertzale deseaba conocer las consecuencias que tendrían en las cuentas de Bizkaia del año 2012, la decisión aprobada por este consejo para computar en la liquidación previa del presupuesto de este año, el dinero recaudado a las empresas vascas por las ayudas conocidas como “vacaciones fiscales”.

El Diputado General de Bizkaia ha confirmado que el dinero se ha computado ya a la liquidación provisional del cierre de cuentas de 2012. “Se ha impuesto otro criterio y lo aceptamos como no puede ser de otra manera”, ha dicho Bilbao en referencia al acuerdo alcanzado por el Gobierno



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Vasco y la Diputación guipuzcoana en ese consejo, de computar en las cuentas de 2012 los 309 millones de euros obtenidos por la devolución de estas ayudas sobre las que pende todavía una resolución judicial de la Corte de Luxemburgo. De este montante, 80,9 millones de euros corresponden a lo recaudado en Bizkaia. Bilbao ha dicho que acata la decisión pero ha vuelto a recordar que la Diputación vizcaína no está de acuerdo con la misma, ya que –según él- debería de haber prevalecido el principio de “prudencia” hasta que se tenga plena “seguridad jurídica”. Ha preguntado a los representantes de Bildu y Socialistas Vascos qué ocurrirá si la sentencia europea es contraria. “Tendremos un lío”, ha contestado.

Para el máximo responsable de la Diputación, lo que ha primado es “lavar la foto” de la liquidación de las cuentas del Gobierno Vasco, pese a considerar el asunto un tema “menor” dentro de los que se trataron en ese consejo. “Más grave” fue la aprobación de un fondo de innovación interinstitucional para los años 2013-2016 o la abstención del Gobierno Vasco en la previsión de ingresos para el año 2013, entre otros asuntos.

Tanto el Grupo Popular como el Grupo Nacionalistas Vascos, han coincidido con el Diputado General en que el criterio que debía haber primado era el de la “prudencia” al estar pendiente una resolución judicial. La portavoz del PP en las Juntas Generales, Esther Martínez ha dicho que este asunto obedece a “urgencias” y “apuros” presupuestarios de la Diputación guipuzcoana y del Gobierno vasco. Puede ser “temerario hacer uso ahora de cantidades que no sabemos si vamos a disponer en el futuro”, ha lamentado Martínez. Coincide con la postura mantenida por Bizkaia y Alava en este asunto, llena de “prudencia, seriedad y sensatez”.

Al portavoz de los nacionalistas vascos, Unai Rementeria le preocupan también los riesgos que se han asumido con la imputación contable de las ayudas en las cuentas de este año. Tanto Bildu como el PSE debían haber centrado el debate en las consecuencias de una futura resolución contraria y no en el supuesto cambio de criterio de la Diputación que él achaca precisamente a estos dos partidos. “Quien contraviene lo acordado y quien cambia de postura es la otra parte”. Según Rementeria la maniobra del Gobierno Vasco en el CVF obedece al objetivo de “ofrecer un déficit menor” antes de su salida del ejecutivo, gracias al ingreso del 70% de los 309 millones de euros recaudados, y apoyados por una Diputación guipuzcoana que es quien “hace el caldo gordo”.

En el otro lado, el apoderado de Bildu Joseba Gezuraga, cree que el acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas de octubre de 2011 establecía que las cantidades recaudadas como devolución de las vacaciones fiscales debían ingresarse en 2012. Ha lamentado que la Diputación utilice el CVF para la “confrontación política” y ha mantenido, como ya lo hacía en su petición de comparecencia, que la Diputación “ha cambiado de criterio” para negarse, sin conseguirlo, a devolver este año ese dinero al ejecutivo de Lakua. Por su parte, Iñaki Egaña, portavoz del grupo socialista, ha coincidido en que existía un acuerdo previo para repartir el dinero en 2012 y en que “se produjo un cambio de criterio” por parte de la Diputación vizcaína. Ha señalado que sobre el acuerdo de octubre 2011, ha habido “interpretaciones diferentes”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Dossier- Proyecto de Presupuestos Generales de Bizkaia

Bilduma- Bizkaiko aurrekontu orokorrak (2013)